

# ENDIKA BARRENETXEA:

## “Erremontea irakasgai bezala erabiltzen dut bizitza arrunterako”

■ IÑIGO GOÑI IRADI

ARGAZKIAK: MAIALEN ANDRES

Endika Barrenetxeak Buruz Buruko txapela irabazi zuen 2019an eta profesionaletara igo aurretik zituen “amets denak baino gehiago” lortu dituela dio. Duela urte batzuetatik atzelari onena bihurtuta, lehia bizian dabil Urrizarekin, erremontistarik onenaren borrokan. Ibilbide horretan asko ikasi du.



Endika Barrenetxea, 2019 Buruz buruko txapeldun!

**E**ndika Barrenetxea “Barrenetxea IV” (1990-08-07) erremontista hernaniarra da eta 2019an Buruz Buruko txapela irabaztearen balentria lortu zuen irailaren 14an. Txapela nagusia jazen duen lehendabiziko hernaniarra da eta 29 urterekin profesional mailan dagoen atzelari hoberena da, duela urte batzuetatik. Zaletasuna etxetik etorri zaio Oialume-ko seme honi; aita eta lehengusuak erremontistak izaki berak ere bide hori jarraitu du eta Barrenetxeatarretan urrutien iritsi dena da. Inoiz burutik pasa ez zitzaion ametsa bete du, baina horrekin ez da konformatzen eta 2020a ere, COVID-19ren krisiaren aurretik, ezin hobeto hasi du buruz buruko Master txapelarekin.

Endika Barrenetxea, sagako laugarren erremontista da eta familian irekitako bideari jarraitu zion orain 15 bat urte. “Aita ez zen erremonte zalea, baina bai pelota zalea. 21 urterekin gizon batek Galarretara eraman zuen eta ordun zale-  
tu zen. Bera izan zen lehendabiziko Barrenetxea erremontean jokatzeko. Ondoren, osaba frontoian eta jokatzeko ikusita, ilobak, hau da nire lehengusuak, hasi ziren erremontean jokatzeko. Izango ziren seiren bat, baina profesionaletara beste bi

iritsi ziren. Iñaki eta Aitor Barrenetxea anaiak. Iñaki ‘Barrenetxea II’ izan zen eta Aitor ‘Barrenetxea III’. Iñaki atzelaria zen eta Aitor denbora gutxi egon zen profesional mailan, belaunetako lesioekin arazo handiak izan zituelako”.

Beraien erreleboa Endika Barrenetxeak hartu zuen urte batzuk beranduago. Aitor Barrenetxea 1977an jaio zen eta hamahiru urteren alde dago Aitor eta Endikaren artean, Barrenetxea IV.a 1990ko abuztuaren 7an jaio baitzen. “Gaztetatik aitaren eraginez erremontea inguruan izan dut eta hortik datorkit zaletasuna. Txiki-txikitatik eduki dut lotura hori”.

Bere aita Joxe Marik profesional izateari utzi zionean hiru urte besterik ez omen zituen, baina Galarretako oroitzapenak baditu oso gazte zenetik. “Galarretara joaten omen ginen aita jokatzeko ikustera. Gogoratzen naiz nola esaten ziguten umeak ezin genuela aulkirik okupatu eta pasiloetan, eskaileretan, ibiltzen ginen. Oroitzapen gehiago ditut Iñaki eta Aitor lehengusuak jokatzeko ikustez. Iñakiren azkenengo partidua gogoan dut ordurako kozkortuagoa nengoelako. Maiz eta txikitatik joan izan naiz Galarretara”.



### “Familia beti joan da Buruz Buruko finala ikustera”

Gainera etxean bazuten eta oraindik badute ohitura zahar bat beti bete edo eutsi diotena eta hori Buruz Buruko finala ikustearena izan da. *“Bi arrebek eta nik urtero-urtero, final bakarra galdu gabe, Buruz Buruko final nagusi denak ikusi ditugu. Jaio ginenetik beti egon izan gara egun horretan Galarretan”.*

Final nagusia irailaren lehendabiziko edo bigarren larunbatean jokatzen da beti eta bertan izan dira Barrenetxeatarak urtero-urtero. *“Berdin zen Munduko zein puntetan geunden egun batzuk aurretik, egun horretan hiru anai-arrebak, beti egon izan gara Galarretan finala ikusten”.* Azken urteetan gainera bi aldiz kantxan finala bera jokatzen egon da eta profesional denetik lehendabiziko eta hirugarren partiduak ere jokatzen ere bai egun horretan.

*“Nahiz eta kanpoan egon abuztuan edo irailaren hasieran, bigarren astean Galarretan egotea derrigorrezkoa da guretzat, urtebetetze baten ospakizuna bezala. Ohitura zen gurean abuztuaren azken egunetan Katalunia aldera ihes egitekoa egun batzuk pasatzera eta bueltatzeko eguna Buruz Burukoaren finalak jartzen zuen”.*

### Erremontea eta esku pelota uztartzen

Endika Barrenetxea esku pelotan ere aritu zen urte batzutan. *“Hamalau urtera arte aritu nintzen Hernaniko pelota eskolan. Koadrilakoak bultzatuta ondoren Antiguoko pelota eskolara joan nintzen eta gero 15 urterekin erremontean hasi nintzen, bi modalitateak uztartzen nituen: erremontea eta esku pelota”.*

Galarretako eskolan hasi zen Barrenetxea erremontean. *“Aitarekin aurretik jazten nuen saskia, baina erremonte eskolan orduan hasi nintzen, 15 urterekin”.* Bere lehendabiziko maisua edo irakaslea Igor Sarasua izan zen. *“Profesional mailan aritzen zen eta ni profesionaletara igo baino urte bete lehenago erretiratu zen”.*

*“Afizionatu mailan hasi nintzenean bazegoen talde bat profesionaletan debutatzeko gertu zeudenak, Xabier Iradi hernaniarra esaterako. Entrenamendu gutxi batzuekin Iradik esan zidan jokatuko nuela profesionaletan, maila ikusi zidaten. Eta ni gustora” aipatzen du Endikak. Pausoz pauso joan zen atzelari hernaniarra, bere erremontista ibilbide guztian egin duen bezala. Afizionatuetan ere horrela izan zen.*

Lehendabiziko afizionatu partidu eta txapelketetan emaitzak ere lagun izan zituen hernaniarrak. *"Txapel asko ez genituen jokatzeko, GRAVN eta Gipuzkoakoa bakarrik eta ia urtero bietakoren bat irabazten nuen"*. Horrela, 18 urterekin profesionaletara igotzeko gertu zegoela lehendabiziko osasun arazoa izan zuen.

### Kotxe batek harrapatu zuen motoan zihoala

Donostian moto istripu batek bere progresioa eten zuen. *"Hanka erdi txikituta utzi zidan kotxe batek biribilgune batean 18 urte betetzera nijoan, 2008an. Aurretik eman zidan, ez zuen 'ceda el paso' errespetatu eta harrapatu egin zidan. Airean irten nintzen mototik lauzpabost metro. Urte bete egon behar izan nuen geldirik; hilabete batzuk eskaiolarekin, gero erreabilitazioan... beraz profesionaletarako saltoa edo debut hori urtebete atzeratu zen"*. Erreabilitazioa nahiko ongi egin zuen aurretik ere beste lesio batek, 16 urterekin, aurreneko erreabilitazioa egitera derrigortu zuen eta ez zen ezezaguna beretzat.

### Profesionaletara salto 2009ko abenduan eta enpresa aldaketa

Nahiz eta ezusteko hori izan debuta etorri zen 2009ko abenduaren 19an Galarretan, Endika Barrenetxea "Barrenetxea IV.a" bihurtuz. *"Aurreko enpresak eman zidan aukera debutatzeko"*. Eta oroitzapen ederrak ditu orain bai Barrenetxea IV.ak. *"Oñatz eta Zubirik gorriz, Urrutia II eta nire aurka jokatu zuten. 35-30 galdu genuen. Hamarna joan ginen, 20-14 galtzen, 27-23 galtzen eta 27na berdindu arren 30ean geratu ginen"*.

Nahiz eta galdu oroitzapen oso onak ditu Barrenetxea IV.ak. *"Oso polita izan zen. Familia guztia zegoen, koadrilakoak afari ederra prestatu zidaten. Kamisetak egin zituzten bertara joateko eta oraindik ere kamiseta hori gordeta daukat. Egun eta giro ezin hobea egon zen. Emaitza gutxienekoa izan zen"*.

2008ko krisiak ere eragin zuzena izan zuen erre-montean eta ondorioa 2010. urte hasieran etorri zen. *"Debutatu eta hiru hilabetera lehendabiziko"*

Endika, debuteko urtean, 2009/2010ean.





deialdia egin zuen enpresak. Bildu eta enpresak esan zigun ezin zela partiduko ordaintzen zen dirua mantendu. Egia esan debutatu berriek ez genuen askorik irabazten, 53 euro partiduko eta jaisteko askorik ez zegoen. Estelarrak jokatzeko zituztenek 800 euro inguru kobratzen zuten”.

Aurrera bide askorik ez zegoen, bilera hori egin eta gutxira enpresak eta Galarretak ateak itxi zituzten. Hala ere, atzetik bazetorren enpresa eta proiektu berri bat. “Bi hilabete egin zituen itxita Galarretak eta tarte horretan Oriamendi2010 enpresa aurkeztu zen. Nik bere berri banuen aita zegoelako proiektuaren barruan”.

### “Txantxilako etxe berriak izango ziren garajeetan Galarretarako zoruak frogatzen ibili ginen”

Enpresak ateak itxi aurretik erremontistek bazezkiten Oriamendi2010 sortuko zela. “Koteto Ezkurak lasaitzeko mezua zabaldu zuen eta enpresa berri batek hartuko zuela kudeaketa azaldu zigun”. Barrenetxea horren jakitun zen. Erremontista guztiek begi onez hartu zuten nahiz eta “jakin soldatak jaitsi egingo zirela eta baldintzak ez zirela garai batekoak izango”.

2010garren urteko ekainean zabaldu zituen berriz ateak Galarretak. “Aurretik frontoia berritu zen, margotu eta kantzako lurzorua aldatu. Zerbait berezia nahi zuten, zoru ona izatea. Txantxilako etxeak oraindik egin gabe zeuden eta erakitzen ari ziren. Etxeen enkofratua soilik zegoen egin eta garajeetan sei-zazpi zoru material eta konposizio desberdinekoak prestatu ziren eta bertan frogatzen ibili ginen. Hiru metro karratuko plakak ziren, pelotekin joan eta bote egiten genuen bakoitzean, harrika ere botatzen genuen pelota. Horrela frogatu genituen zoru desberdinak eta bat aukeratu genuen Galarreta berriturako”. Momentu honetan erremontean jokatzeko zorurik onena da “dudarik gabe” Barrenetxearen us-tez. Asmatu zutela esan liteke.

### Gutxinaka baino geldialdirik gabe hobetzen

2010eko udan berriz ere bere ibilbide profesiona-l martxan jarri zen. Pixkanaka hobetzen joan zen eta bere progresioa geldiezina zen, baina gogoratzea gustatzen zaion bezala pausoz pauso

eta geldialdirik gabe. “Ez det uste nire profesional ibilbidean salto handirik eman dudarik edo inflexio punturik egon denik nire hobekuntzan. Eskailera banaka igo ditut, ez ditut binaka inoiz igo erremontean”.

Hurrengo partiduari begira, mailaz hobetzeko, gertuen dagoen erremontista izan du beti erreferentzia. Pauso txikiak izan dira, baina seguruak oinarri sendoak jarritz. “Profesionala igo nintzenean 54 erremontista geunden eta nire aurretik 25-26 atzelari zeuden. Zubiri eta ni ginen igotako azken bi atzelariak eta berak ni baino urte gehiago zituen eta indarra ere bai. Nire helburua Zubiri gainditzea zen eta zerrendan zein zen hurrengoa begiratzen nuen; urte horietan Zubizarreta, gero Badiola, Agirrezabala... ea beraiek baino aurrelari ahulagoa jartzea lortzen dudan esaten nion neure buruari, hori baita seinale gainditu dituzula. Bana-bana denak gogoratzen ditut”.

Orain ez du horrelako erreferentziarik bera baita atzelarien artean maila gorenean jokatzeko ari den atzelaria duela urte batzuetatik. “Orain beste erreferentzi batzuk ditut. Aurrelariaren erreferentzia hartzen dut. Esan dezagun ranking bat dagoela eta horrek erakusten dizula zein maila duzun. Maila onean urte batzuk daramatzat, baina lehen ez zidaten jartzen akats asko egiten zituen aurrelari bat. Duela bi urtetik hori suerta liteke. Kike Elizalde intendenteak azterketa ona egin du nire jokoarena eta mailarena. Usten dut oso ongi eramane duela nire ibilbidea. Partiduak jartzean asmatu du, ez dit gehiegi estutu ezta alderantziz ere, oreka eramaten jakin du eta hori ez da erraza izaten bere lanean”.



Javi Urriza eta Endika Barrenetxea.

## Azken urtean Javi Urrizaren pare edo gainetik binaka, baina bidean Crohn gaitza

Endika Barrenetxeak 2019an eta 2020an jokatu dituen partiduak aztertzen badira, binaka, ikusi daiteke Urrizaren pare edo gainetik ibili dela. Abantailak ere eman ditu azken hilabeteetan Urrizarekin alderatuta. “2016an Urrizaren aurka banakako finala jokatu nuenean, puntan nenbilen atzelari onena bezala, baina orduan oraindik ez zidan Elizaldekin rankingean atzean dagoen aurrelaririk jartzen bikote bezala. Hortik gutxira Crohn gaitza (hesteetako gaixotasuna) nuela jakin nuen. Horrek berriz zerotik hastera behartu nindun (14 kilo galdu zituen). Berriz kantxetara itzuli nintze-nean, lan handiarekin, pixkana nire lekura buelta nintzen. Horrela, pasa den urteko udaran, uztailan, ikusten zen Urriza baino partidu zailagoak ari nintzela jokatzeko eta bere aurka nire aurrelaria bere atzelaria baino ahulagoa zela”.



## Banakako txapelaren garrantzia

Hala ere, Endika Barrenetxeak Urriza gainetik ikusten zuen banakako borrokan. “Azken Buruz Buruko txapelketa Nagusiko ligaxkan erraz edo horrenbesteko lanik eman gabe irabazi zidan. Binaka ikusten nintzen bera baino gehiago jokatzeko, baina banakakoan gehiago zen eta hori da benetako maila erakusten duena zaletuarentzako. Agian, Galarrretara joaten den zaletuarentzako ez, partidu benetan zailak irabazten ikusten dizutelako, baina noizbehinkako zaletuarentzat buruz burukoa da erreferentzia”.

Eta hori normala dela dio atzelari hernaniarrak. “Banakakoan esfortzu fisikoa haundiagoa egiten da eta zu zera galdu eta irabazten duzuna, ez dago beste inor egun txar bat, agian, izkutatuko dizuna. Zuk egin behar dituzu gauza onak eta akatsak ere zureak dira. Hor ez dago gezurrik, dena azaleratzen da”.

Banakako txapelak gainera Endika Barrenetxearengan ondorio oso positiboa izan du. Badira kirolariak behin irabazita erlaxatu egiten direnak, baina ez da hori Barrenetxea IV.aren kasua. Iraitetik mailari eutsi bakarrik ez, baizik eta gorakada izan duela esan liteke. “Nahi gabe, inkonszienteki, eragina izan du. Ez dakit niregan edo aurkariengan, baina nabaritzen da”. Beste estatus edo rango bat eman dio bere lankide edo frontoiko lagunengan. “Kantxan errespetu haundiagoa nabaritzen dut, beste begi batzuekin begiratu eta ikusten nautela. Urduritasun gehiago nabaritzen dute askok”.



Barrenetxea eta Urriza, 2012ko Binakako Txapelketako txapeldunak.

## Dena irabazi du Sagardoaren Txapelketa ez beste

Profesionaletan jokatzeko diren txapelketa ia guztiak irabazi ditu Endika Barrenetxeak, 2020 hasieran irabazi duen Master Txapelketarekin. Hala ere arantza txiki bat badu. *“Sagardoaren Txapelketa ez dut irabazi eta urtero Oialume Zar ordezkatzeko dut. Osabak eta lehengusuak esaten didate, agian beste atzelari baten bila hasi behar-ko dutela txapela irabazteko”*. 2019an iritsi zen urrutien, Ansarekin finalaurrekoetara sartuz.

Bromak alde batera utzita, egia esan, pilotzen ari den ibilbidea ikusgarria da. Binakakoa irabazi zuen 2012an Urrizarekin. Hori izan zen bere lehenengo txapel nagusia eta agian ilusio handiena egin diona. *“Nire ametsa Binakako txapel-dun izatea zen. Inoiz ez zitzaidan pasa burutik Binakako txapel-dun izatea, baina bai ordea Binakakoa. Bestea oso urrun ikusten nuen, ez zen nire aspirazioa inoiz izan. Izugarria izan zen Urrizarekin txapela janztea. 2016an Binakako finalera iritsi nintzenean, kasualitatez nengoela pentsatzen nuen. Momentu horretan ere ez nuen Binakako txapel-dun izatea pentsatu, baina bai noizbait binaka txapel-dun izatea”*.

Bide horretan dudarik gabe asko lagundu dio kritika txarrei entzungor egitea eta aholku onekin geratzea. *“Jende askok animoak eman dizkit eta horrek laguntzen du. Mugarriak goran jartzen laguntzen dizu, iritsi zaitezkeela pentsarazi eta iristen saiatu”*.



San Fermin Torneoan garaile Urrizarekin.

San Ferminetako bi txapela ere irabazi ditu nahiz eta Euskal Jai ez izan bere gustuko frontoia. *“Lau final-etara iritsi naiz, bi irabazi, frontoi hura gogoko ez izan arren. Ongi joaten zait edo besteei oso gaizki. Galdu ditudan bi finalak ere 39n eta 38n geratu nintzen. Gero gainera auzoko jaiak izaten dira egun horietan. Egunderrak izaten da”*. Azpeitiako torneoko txapela ere irabazia du Barrenetxeak. Hala ere lehen esan bezala Binakakoa du kuttuna.

## “Urrizarekin binaka irabaztea Mundiala izan zen. Lotura berezia sortu nuen eta neretzako erreferentzia da”

Binakako txapelaren oroitzapen ezin hobeak ditu. *“Mundiala izan zen. Etxean oraindik gordeta dut lagunek eramandako pankarta, baita egun horretarako egin ziren kamiseta batzuk eta ondoren egin genuen afaria oso gogoan dut”*. Finala Ezkurra eta Olazarren aurka jokatu zuten. Bi final nagusiak beraz aurkari oso gogorren kontra lortu ditu. *“Partidu ona ez zen irten ikuslearentzat. Guri dena irten zitzagun eta beraiei berriz ez. Nahiko erraz irabazi genuen. Asko jokatu genuen Urriza eta biok”*. Binaka jokatu zuen lehenengo final nagusia izan zen eta irabazi. Ezin da gehiago eskatu.

Hala ere, gorde duen oroitzapenik handiena Urrizarekin sortu zuen lotura izan da. *“Binakako horretan sortu zen. Ordura arte gutxi elkartzen ginen maila desberdinetan geundelako, ni Olazarren pare nengoen gutxi gora-behera. Urrizak orduan erakutsi zidan partidu bat irakurtzen, partiduan zehar noiz izan behar den atseden, lehiaketako kontzeptuak erakutsi zizkidan”*.

Urriza maisu eta aurkari izan ditu erreferentzia bihurtuz. *“Pelota bila nola joan behar nuen erakutsi zidan eta ni orduan esponja bat bezala nintzen, dena xurgatzen nuen. Zorte ikaragarria izan nuen bera bezalako pertsona batekin elkartzea. Eredu bat izateaz gain, erakusteko eta gauzak transmititzeko doai ikaragarriak ditu. Pelotari hobeak egon litezke, Koteto Ezkurra bezala, baina Urrizaren erakusteko gaitasuna ikaragarria da eta berdinezina. Patsada, kontrola, komunikatzeko gaitasuna... dena du”*.



Urrizak asko babestu duela dio eta eskertzen du Barrenetxeak. *“Laguntasuna areagotu du. Sparring lanak ere egin izan dizkiot beste momentu batzutan buruz buruko finalen bat prestatu aurretik. Hor ere asko ikasi nuen”.*

2019 irabazi duen Banakakoaren zati bat Urriza berarena ere badela uste du Barrenetxeak. *“Berari esker, ikasi dudanagatik izan da. Pena pixka bat ematen dit berari irabazteak, baina txapela horren zati bat Urrizari esker lortu dudala argi daukat”.*

Eta Urrizak berarekin egin duen maisu lan hori Barrenetxea egiteko prest dago, Ansa bezalako erremontista batekin. *“Berdina da. Partiduetan irakasten saiatzen naiz, partidua irakurtzen lagutzen diot, asko hitzegiten dugu... sentsazio horiek transmititzen saiatzen naiz. Dudarik ez daukat hemendik denbora batera buruz buru bera izango dela gauzak zailen jarriko dizkidan aurkaria izango dela”.*

## Lehenengo Masterra, konfirmazioaren txapela

Txapela guztiak esanahi berezia dute eta Buruz Buruko txapel nagusia irabazi eta gero Binakakoan ezin izan zuen txapela bigarrenengo aldiz irabazi. Hemen, Urriza eta Larrañaga gehiago izan ziren Matxin III eta Barrenetxea IV baino. Urtea amaitu zen final horrekin, baina 2020aren hasieran Master txapelketa jokatu zen. Denboraldiko azkena izaten dela esan liteke, nahiz eta urteko lehenengoa izan. Bertan, aurreko udaran puntan ibili diren erremontistak aritzen dira buruz buru.

Finalera, berriz ere, udarako bi protagonistak iritsi ziren eta partidu ikaragarria jokatu zuten, emozioz betea, tanto ederrekin eta garaipena berriz ere Barrenetxearentzat, tanto bakarreko aldearekin, 30-29. *“Udarako finalean listoa oso altu jarri genuen Urriza eta biok. Final oso ona izan zen eta urtarrilean ez gera egoten gure sasoi onenean banaka jokatzeko. Entrenamendu gutxi egiten ditugu eta ez gaude frontoira buruz buru jokatzeko.*



2019ko Buruz Buruko KUTXABANK Torneoko txapeldun!



2020ko Masterreko txapelduna.

*Hala ere, behin jokatzeko hasita berotu egin ginen eta izugarritzko partidu ederra irten zen. Azken tantoetan bi ikaragarri ikusi ziren, 28-29a batez ere. Hazi egin ginen". Duda guztiak uxatu zituen. "Irabazteak lasaitasun puntua ematen dizu, behin irabaztea ez dela kasualitatea izan. Bi jarraian irabazteak zeozer esan nahi du". Txapela guzti horiek urteko erremontistarik hoberenaren saria lortzea eta saritua izatera eraman zuen. Urrezko Erremontea etxeratu zuen otsailean.*



2020ko Urrezko Erremonte saria, Xabi Gonzalez ORIAMENDI2010eko gerentearekin.

## Nadal etorri zen Galarretara eta kirolari bezala eredu

*"Erremontek esperotakoa baino askoz gehiago eman dit" azpimarratzen du Barrenetxeak, nahiz eta momentu gogorrak izan dituen aipaturiko lesio eta gaixotasunarekin. "Erremonteari eskaini dizkiodan ordu guztiak bai jokatzeko, bai entrenatzeko, bai entrenatzaile edo irakasle bezala... denak guztiz konpentsatuta daude lortutakoarekin eta gozatutakoarekin. Asko irakatsi dit erremontek, final batean ere asko ikasten da, 1.000 pertsonen aurrean urduri eta hori kudeatzen irakasten dizu. Pertsona bezala garatzen lagundu dit neure burua eta momentu horiek kudeatzen, estresa ahalik eta hobekien eramaten. Saiatu nahiz kantxa barruan ikasitakoa kanpora, nire egunerokotasunera, eramaten. Frustazioak eramaten irakatsi dit eta ez nire honetik ateratzen. Erremontea irakasgai eder bat izan da niretzat".*

Bide horretan seguru Nadalen ereduak balio izan diola. Endika Barrenetxeak bere ibilbidean izan ditu irakasgai desberdinak eta kirolari eredugarriak ere bai. Horietako bat Rafa Nadal tenislaria da. 2010ko uztailean Galarretara etorri zen Wimbledon bigarren aldiz irabazi eta hortik egun gutxira. Kirolari bezala erreferente da askorentzat eta baita Barrenetxea IV.arentzat ere. *"Hor hasi zen lehendabiziko lekzio garrantzitsua. Gipuzkoa-  
ra etorri den aldietan, bi-hiru aldiz, egon naiz berearekin. Horrelako izar bat izanda, deigarria da nola kudeatzen dituen egoera desberdinak. Badaki momenturo bere lekuan egoten. Wimbledon irabazi eta hortik ordu batzuetara Espainiako Errege Erreginak egon zen eta 48 ordura gurekin. Eta bai leku batean eta bestean badaki egoten eta egokitzen. Dena neurtzen daki, bai pistatik kanpora eta pista barruan ere bai noski".* Kirola bizitzarako irakasgai ona dela ez du dudarik Barrenetxeak. *"Igandero goizean goiz entrenatzera ohitu naute etxean. Disziplinaren balorea erakusten du, errespon-  
sabilitatea... hoiek danak oso ongi etorri zaizkit bizitzarako".*